

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza<sup>info</sup>

Ostirala, 2012ko azaroaren 16a. IX. urtea. 2.435. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Dagoen garraio publikoa hobetzeko eta zerbitzu berriak emateko plana, abian

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualdeko garraio publikorako eskaintza berria diseinatu du Tolosaldeko udalen eta Tolosaldea Garatzenen laguntzarekin

Herritarren ekarpenak ere jaso nahi dituzte, eta azaroaren 25a arte bilduko dituzte proposamenak; eskaerapeko zazpi linea berri jartzea aurreikusi dute ◦4-5



### Aiztondo bailaran ere dirurik gabeko trukeak egin daitezke

Denbora bankua aurkeztu berri dute, herritarrek zerbitzuak trukatu ahal izateko; Tolosan denbora bankuen topaketa egingo dute, bihar ◦6

### Villabona, Tolosa eta Lizartzako ahotsak, Kantu Txapelketan

Gipuzkoako lehiaketako finala izango da igandean, Donostiako Antzoki Zaharrean ◦2

### Garagardo Pesta bihar, Leitzako Torrea tabernan

Festa 14:00etan hasiko da; gauean Nats & Wats taldea entzun ahaliko da ◦7

### Azkarateren aurkako auziaren epaia, abenduan

Frantziako Tolosa herrian tolosarraren kontrako euro agindua epaitzen ari dira ◦6

→ **Limousinek 100 urte.** Tolosako Cartonajes Limousin enpresak bisita berezia izan zuen atzo; 100 urte bete ditu eta hori dela eta alkatea, hainbat zinegotzi, Tolosaldea Garatzeneko arduradunak eta foru aldundiko Jon Peli Uriguen izan ziren bertan. Enpresako kudeatzaile Iñaki Ormazabalek (eskuinean) txokolatea eta txikoria ekoizten hasi zirela, lantokia Limousin familiarena zela, eta egun, langileen jabetzakoa dela azaldu zuen. ◦3

**FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**TOLOSA**  
Kondeko Aklaga, 5  
943 - 67 00 40

**VILLABONA**  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73



harpidetu TXOKOA hitza



sarrerak

saridunak

“Frankismoaren aztarnak arakatzeko”  
liburuaren bi ale

Koldo Larreta Zinkunegi (Tolosa)  
Maria Angeles Ezeiza Tapia (Tolosa)

Liburua jasotzeko, HITZAren Tolosako egoitzatik pasa

# Eskualdeko ahotsak, Gipuzkoako Kantu Txapelketaren finalean



Aitziber Guiu tolosarra, gitarrarekin. HITZA

Aitziber Guiu tolosarra, Garazi eta Amets Esnaola lizartzarrak, eta Mirari Alkorta billabonatarra ariko dira

**Imanol Garcia Landa**

Gipuzkoako XVI. Kantu Txapelketako finala egingo dute, etzi, igandean, Donostiako Antzoki Zaharrean, eta bertan eskualdeko ordezkari izango da: Mirari Alkorta billabonatarra Ezten Giro taldearekin, Aitziber Guiu tolosarra, eta Garazi eta Amets Esnaola lizartzarrak. 18:00etan hasiko da, eta guztira hamalau partaide ariko dira. Hamalau abestietatik «onena, erakarga-

rriena, abesti osatuena» aukeratu dute.

Finalean entzungo diren 14 abestietatik 11 kanta berriak dira, sortze-lanak, eta horietatik ere kanta onena aukeratu dute Lekaio kultur elkartearen eskultura berezia eskaintzeko. Hain justu, eskualdeko ordezkari izaten dutenek beraien sormenetik aterako abestiek in lehiatu dute. Ezten Giro talde debarrak Mirari Alkortak konposatutako *Azken muxua* abestiarekin parte hartuko du. Bere aldetik, Guiuk berak sortutako *Bizitzaren melodia* abestuko du. Esnaola ahizpek *Ezintasunean: sinistu nahi dut* abestuko dute, M. Muñozek eta Amets Esnaolak egin.

Hiru epaile izango dira sariak erabakiko dituztenak. Batetik,



Garazi eta Amets Esnaola lizartzarrak. HITZA



Mirari Alkorta billabonatarra, Ezten Giro taldeko kidea. HITZA

Jagoba Astiazaran ariko da, Ibarrrako Alurr dantza taldeko musikaria. Bestetik, Oihane Sarasola ibartarra, hainbat aldiz txapelketan parte hartu duena eta Emon taldeko abeslaria. Azkenik, Ain-

hoa Ansa, hainbat urtetan Euskal Kantuzaleen Elkartearen koordinatzailea izandakoa. Epaimehaiaren erabakia jaso bitartean, Punta Ara2 taldeak emanaldi berezia eskainiko du.

## Euskal Herriko lehen zero zabor herria izango da Orendain bihartik aurrera

**I. Garcia Landa** Orendain

Orendain Gipuzkoako eta Euskal Herriko lehen zero zabor herri bihurtuko da bihartik aurrera; organiko guztia herrian bertan tratatuko duen Euskal Herriko lehen udalerrria, alegia. Horrez gain, gainerako hondakin guztiak gaika biltzeko sistema izango du: papera, ontzi arinak, pilak, txiza-oihalak, etxeko tresna txikiak eta abar. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, Iñaki Errazkin Ingurumeneko diputatua buru dela, Gorka Egia alkateak eta Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak sistema berria inauguratu dute etzi, 11:00etan, udaletxe aurrean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, Orendaingoa «jardunbide eredugarria» da.

Etziko ekitaldian, Tolosaldeko mankomunitateak esleitutako enpresak azken edukiontzi berdea erretiratu du, eta herrian ez da edukiontzi berderik egongo. Ondoren, Orendaingoa herrian hondakin tratu nola izango den azalduko du Egia, eta Iñaki Errazkinek eta Ainhoa Ugalde mankomunitateko lehendakariak hitza hartuko dute. Hori eta gero, herrian zehar bisita gidatua egingo dute, birziklaguneak eta hiri hondakin tratu berria ezagutarazteko.

## Herrigintza elkarteak 22. aldiz antolatu du Ikaztegiako Herri Krosa, biharko

**I. Garcia Landa** Ikaztegieta

Herrigintza elkarteak beste behin antolatu du Ikaztegiako Herri Krosa. Bihar egingo da eta dagoeneko 22. aldiz da antolatu dutela elkarte kideek. 16:30ean hasiko da lasterketa, eta 10 kilometro egin beharko dituzte lasterkariak. Herrigintza elkarteak prestaturako hiru itzuli izango dira egin beharrekoak. Izena aldez aurretik ematen dutenek 10 euro or-

daindu beharko dute, eta egunean bertan 13 euro. Aldez aurretik, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean eman daiteke izena. Egunean bertan egin nahi izanez gero, 15:00etatik 16:00etara dago aukera. Herriko haurren lasterketa ere izango da, 16:15ean.

Kirolaz gain, kultur ekitaldiak ere izango dira herrian, gaurtik hasita. Kulturaldia egitarauaren barruan, gaur *Sua* filma ikusiko dute, udaletxe azpiko aretoan. Datorren astean, ostiralean, hurrentzako txotxongilo saioa izango da, eta igandean, hilak 25, DBH4ko ikasleen jaia. Batetik, jai horretan bigarren eskuko azoka egingo da. Erabiltzen ez dituzten gauzak saldu nahi dutenek, 687 54 24 69 zenbakira deitu dezakete edo egun horretan 11:00etatik 12:00etara plazara azaldu. Bestetik, argazki zaharren erakusketa egingo dute, eta argazkiak era-

### ↓ Kulturaldiaren egitaraua azaroan

#### AZAROAK 16, GAUR

■ **22:00.** Udaletxe azpiko aretoan, helduentzat *Sua* filma herri-kola.

#### AZAROAK 23, OSTIRALA

■ **17:00.** Udaletxe azpiko aretoan, 4 *anaia umezurtz txotxongilo* saioa haurrentzat.

#### AZAROAK 25, IGANDEA

■ **12:00.** DBH4ko ikasleen eskutik bigarren eskuko azoka, eta talo eta gaztaina jatea izango dira. Ikaztegiako argazki za-

harren erakusketa ere ikusgai izango da.

#### AZAROAK 30, OSTIRALA

■ **20:00.** Zinema gaua, Mikel Beraetxe aktoreak aurkezturik eta *Goenkaleko* aktore ohia den Jose Mari Garmendia herritarrek egindako lau film labor ikusteko aukera izango da.

■ **21:00.** Euskararen Eguna ospatzeko afaria eta kantaldia Herri Ostatuan. Txartelak aurrez hartu behar dira Ostatuan bertan, 18 euroren truke; horretarako azken eguna hilaren 25a izango da.

man nahi dituenak 659 40 85 20 zenbakira deitu behar dute. Azkenik, talo eta gaztaina jatea egingo

dute. Aurrerago, Kulturaldian zinemaz gaua eta Euskararen Eguneko afaria egingo dituzte.

## → Laburrak

### Udalaren deialdia pinuak auzolanean landatzeko

**BIDEGOIAN** > Bidegoiangoa Udalak auzolana antolatu du biharko. Herrian orain dela gutxi gasifikazioko zentral berria egin dute. Hori dela eta, herritar guztiak deialdia egin diete, zentral horren inguruan pinu landareak landatzeko. 09:00etan elkartuko dira Goiatzen, gasifikazioko zentrala dagoen lekuan. Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu auzolanera, «elkarlanean lanak errazago eta hobeto egiten baitira».

### Odola emateko aukera, datorren asteartean

**IKAZTEGIETA** > Odola emateko aukera izango da datorren asteartean, hilak 20, Ikaztegieta. Kiroledegian 19:00etatik 21:00etara egongo dira odol emaleen elkarteak.

### ↓ Iragarki laburrak

#### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.

# Cartonajes Limousinek 100 urte, gizarte enpresaritzaren bidetik

5.000 metro karratuko lantegia dute Usabal industrigunean, eta 40 langile inguru aritzen dira bertan

## Itzea Urkizu

Mendeurrena ospatu berri dute Tolosako Cartonajes Limousin enpresan. 1888. urtean txokolatea eta txikoria ekoizten zuen lantegi hartatik, kartoizko kutxetara pasa zen enpresa, eta erakundeetako arduradunek eredugarritzat jo duten gizarte-ekonomiaren bidetik iritsi dira gaur egunera arte.

Itziar Ormazabal enpresako kudeatzaileak azaldu du enpresaren mende beteko historia. Chocولاتes y Achicorias Limousin Hermanos zuen izena jatorrizko enpresak, eta Igarondoko eremuan zuten lantegia. XX. mendean hasieran, euren ekoiztutako produktuak biltzeko kutxen beharra ikusi, eta kartoizko kaxak egiten hasi ziren. Bide honetan, 1912. urtetik aurrera, kartoia ekoizten hasi ziren erabat, Cartonajes Limousin izenarekin. 70. hamarkadan Igarondoko lantegiak su hartu zuenean ireki zuten Usabalgo eraikina; garai hartan, hiru enpresa besterik ez zeuden bertan.

Gaur egun krisiak esparru guztiak hartzen dituen arren, 80ko hamarkadan ere ekonomiak izan zuen gainbehera. Izaera aldaketa bat ekarri zion honek enpresari, eta Limousin familiarena izateari utzi, bertako langileen jabetzara pasa zen erakundea. Orduan hasi



Lantegia erakutsi zieten foru aldundiko nahiz udaleko ordezkariak. I. URKIZU

ziren, beraz, gizarte enpresaritzaren bidea jorratzen hasi ziren; lan elkarte anonimo bilakatu zen Cartonajes Limousin.

Azkenik, kartoiaren izaera jasangarria ere nabarmendu du Ormazabal kudeatzaileak: «Papera lortzeak CO2 tasa jaitxi egiten du, zuhaitzak landatu behar baitira; Espainiako basoen %50a papera ekoizteko landatutakoa da».

### «Filosofia eredugarria»

Gaur egun, 5.000 metro karratu inguruko lantegia dute Tolosan, eta 40 lagun aritzen dira lanean.

Itziar Ormazabalek nabarmendu duenez, eskaintzen duten «zerbitzu azkarra» da euren tresnarik onena: «Enpresa integrala gara, eta paperetik abiatuta, kartoia egin eta eraldatu egiten dugu hementxe bertan». Hau dela eta, azken urteotan lehiakideen aldean Cartonajes Limousin-en balioa handitu egin dela uste dute.

Aurrera begira, enpresa filosofia berarekin jarraitzeko aurreikuspenak dituzte enpresako kideek. Hain zuzen ere, enpresaren antolakuntza hau goraiatu dute Ibai Iriarte Tolosako alkateak, eta

baita foru aldundiko Berrikuntza, Landa garapen eta Turismo saileko Jon Peli Uriguenek ere.

«Langileek enpresan parte hartzeak estrategikoa behar du izan, eta datozen urteotan gure lanildoetako bat izango da», azaldu du Uriguenek.

Iriartek, berriz, enpresak bere lana dibertsifikatzeko izan duen gaitasuna nabarmenduz, laudorioztatu egin du «herrian sorturiko enpresa batek herrian jarraitzea, eta eredu sozial horrekin, gainera».

✉ [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## → Laburrak

### Ibarrako egutegirako argazki lehiaketa abian

**IBARRA** ▶ Ibarrako Udaleko Euskara zerbitzuak datorren urteko udalaren egutegian azalduko den argazkia hautatzeko argazki lehiaketa jarri du martxan. Lehenengo aldiz egingo duten lehiaketa izango da, eta Ibarran jai, bizi edo lan egiten duten hamalau urtetik gorako edonork parte hartu ahalko du. *Herria eta herri nortasuna* izango da argazkien gaia, eta parte hartzaile bakoitzak sei argazki aurkez ditzake. Argazkiak CD batean itxikatu gutunazalean aurkeztu beharko dira Ibarrako udaletxean, azaroaren 21a baino lehen.

### Isidro Larrañaga akordeo orkestraren kontzertua

**TOLOSA** ▶ Isidro Larrañaga akordeo orkestraren kontzertua izango da gaur, lurreamenduko egoitzan. 18:30ean hasiko da emanaldia, eta lurreamendiko kaperan izango da.

### Elkarretaratzea igandean, 12:00etan, Trianguloan

**TOLOSA** ▶ Kalean sinatu gabeko hainbat karteletan egin duten salaketaren arabera, bortxaketa eta erailketa delituengatik kartelan izandako pertsona bat ikusi dute kalean. Antza beste bortxaketa saiakera baten egile ere bada. Elkarretaratzea deitu dute igandean, 12:00etan, Trianguloan, «horrelakoak ez babesteko» eskatzeko.

### Galtzakomik lehiaketan parte hartzeko aukera

**IBARRA** ▶ Galtzaundi euskara taldeak Ibarrako Udalarekin elkarlanean antolatuta, abian da V. Galtzakomik Lehiaketa. Parte hartu nahi dutenek azaroaren 23ra arte izango dute aukera euren lanak Galtzaundiko egoitzan aurkezteko. Sari banaketa abenduaren 14an egingo dute Ibarrako kultur etxean. Informazio gehiagorako euskara taldearekin (943 65 50 04) jar daiteke harremanetan.

### Uzturpe ikastolak batzarra egingo du hilaren 22an

**IBARRA** ▶ Uzturpe ikastolak ohiko batzarra egingo du azaroaren 22an, Uzturpe ikastolan. 18:30ean izango da lehen deialdia, eta 19:00etan bigarrena. Guraso ordezkari kideen aurkezpena, aurrekontuen aztertzea edota errektore kontseilua berriaz izango dira jorratuko dituzten gaietako batzuk.

## Berrialaguna egiteko aukera izango da Babarrunaren azoka berezian

I. Terradillos Tolosa

Babarrunaren azoka berezian barruan Berria taldeak bere mahaia jarriko du bihar goizean. Hain zuzen ere, Gaztelako Atearen ondoan egongo da mahaia, eta nahi duen orok Berrialaguna egiteko aukera izango du, bere *ziztada* eginez.

Berria taldearen proiektuak sostengatzen dituen komunitatea indartzeko sortutako ekimena da Berrialaguna. Berriaren Mahaira gerturatuta nahi adina informazio jaso ahaliko da.

## Umorezko zineman zehar bidaiaria egiteko aukera, 'Ticket' antzerkian

Gaur izango da ikuskizuna, Leidor aretoan, 20:30ean, Clownic-Tricycle taldearen eskutik

I. Terradillos Tolosa

Clownic-Tricycle taldearen Ticket antzezlanak izango da ikusgai gaur, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera. Esketx azkarrez osatua umorezko zinema eta antzerki komikoa uztartzen dituen emanaldia da.

Egileek diotenaren arabera, umorezko zinemaren historian zehar bidaiatzea modukoa da an-



Ticket antzezlaneko kideak. HITZA

tzezlanak. Segida barregarri unibertsalenak ditu abiapuntu, hala nola, Charles Chaplin, Marx Brothers, Keaton, Laurel & Hardy, Rowan Atkinson (Mr. Bean) eta Monty Python, besteak beste.

Hau guztiak, «clowing erara eraldatuta», segida zahar haiek berriz bizi ahaliko dira.

Sarrerak, ohi bezala, Leidorreko leihatilan edota Internet bidez eskuratu ahaliko dira.



Egun eskualdeko garraio publikoa, errepide bidez, Tolosaldea Bus enpresak ematen du...

# Garraio publikoaren plan berrirako herritarren ekarpenak nahi dituzte

Egin HITZAko harpidedun azaroren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baseriko produktuez osatutako saski ederra

## OPARI

Imanol Garcia Landa

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosaldea Garatzen eta udalaren laguntzarekin, eskualdeko garraio proposamen berria diseinatu du. Tolosaldeko udaltek, mugibiltasun eredu iraunkorren sustatzeko politikak garatu, garraio publikoari «arreta berezia» eman nahi diote eta autobus zerbitzu erosa, egoki eta erabilgarria izan nahi dute. Horregatik, garraio sistema proposamen berria eskualdeko errealitateari egokitu dadin eta mugibiltasun beharrezko erantzun egokia eman diezaien, Tolosaldeko Garatzenek parte hartze prozesu bat jarri du abian, udal, herritar, enpresa eta eragile enpleatuen itxizki eta inplikazioak jasotzeko. «Denen artean, gure autobus zerbitzua osatu nahi dugun» esan du Garatze Mendizabal Tolosaldeko Garatzeneko udal garapenerako teknikaria.

Aldundiak, aurreproiektua egun du Tolosaldea Garatzenekin eta udalekin, baina hain beharrezko ikusten zuten herritarren

... HITZAren harpidedun artean bi pertsonentzako harri bolantekodun mastaje geometriala (30') + Jacuzzi sesioa zozkatuko dugu

hitza harremansetarako: 202 52 02 01 harpidetza@hitza.info

Ekarpenak egiteko azken eguna hilaren 25a izango da; prozesuan parte hartzen dutenen artean sariak zozkatuko dituzte

Plan berriaren ezaugarri nabarmenena eskaerapeko zerbitzua da; gutzira zazpi dira

Imanol Garcia Landa tzen inguruan ekarpenak jasotzen herritarren aldean. «Orokorrean maiztasuna igotzea da eskaera, baina badaude beste hainbat kontu udal bakoitzak herritarrek nahi egiten nahi dituztenak», azaldu du Mendizabalek.

Horrela, foru aldundiak hilerako ope eman du ekarpenak egiteko. Ipeko hilaren 25ean bukatuko da. «Ekarpen guztiak bildu eta txosten bateratua bidali zaio aldundiari», azaldu du Mendizabalek.

Prozesuan parte hartzeko hainbat modu daude. Batetik, Tolosaldea Garatzeneko bulegoera joan daiteke, eta bertan eskuragarri daude aurreikusitako planaren berritasunak eta iritzia emateko orria ere. Bestetik, udal bakoitzaren eronkuntza egiten eta iritzia emateko aukera dago. Azkenik, internet bidez jaso daiteke informazioa eta ekarpena egin, bai Tolosaldea Garatzenen webgunean (www.tolosaldeagaratzen.com) edo mikrobusen egungo dute. «Kusi da autobusak gora eta behera gure landa eremuetan

artean zozketa egingo dutela azaldu du. Lurraldeko hosto kartel, bakoitz 15 euroko kargarekin, eta Tolosaldeko merkataritza ekarpen demontat gastatzenko 50 euroko kirri boro mekatuko dituzte, hain zuzen.

Bestalde, zenbait herritarren bilerak egiten ari dira, foru aldundiak onduko diren parte hartzearekin. Hurrengo bilera Ballarainen izango da, hilaren 22an, 19:00etan.

**Berrikuntzak**  
Garraio publikoaren plan berria, erabilera aldagarriaren ondoren zerbitzuak mantendu egingo dira, hau da, aurreproiektuan Lietik. Lera tendentziak. Hor berrikuntza bat izango da, egun Tolosa eta Asteasu arteko zerbitzua TSTT Enpresak ematen duela, eta gero Tolosaldeko autobus zerbitzuan emango duen enpresak bere gain hartuko dituzte. Bestalde, egun ez dagoen Tolosa eta Apata industrialdearen arteko zerbitzua izango da. L. letrez izendatutako zerbitzu hauen orduetegi eta geltokoi finak izango dituzte, eta autobusak izango dira.

Baina berrikuntza nabarmenena eskaerapeko zerbitzua izango da. Plan berria D1 letrarekin zehaztu daudenak dira, eta gutzira zazpi izango dira. Zerbitzu horiek taktik edo mikrobusen egungo dute. «Kusi da autobusak gora eta behera gure landa eremuetan

ibiltea ez dela oso sustentagarria, eta eskaerapeko zerbitzua hobeto egokitzen dela gure errealitateari», argitu du Mendizabalek. «Herritar landa eremuko herritarrei garraio zerbitzua hobetzea da». Zerbitzu horiek bakoitzeko eskaerapeko zerbitzua izango dira, eta zerbitzu horiek aldatuko dira norbitzek eskaera egiten badu, esan du Mendizabalek.


Aldiz, bai Tolosa eta Hernialde arteko zerbitzua da, aurreproiektuan D2 gisa izendatu dena. Norbitzek Hernialde, Tolosa, edo Aldizarteko zerbitzuan, garraio publiko erabil nahi badu, eskaera egin beharko du zerbitzu hori izateko. Baina horretarako orduetegi berrak proposatu dira aurreproiektuan: askehenetik ostirala zazpi aurreratu izango dira, eta larunbatetara eta uztailera eta abuztuko aste guretan, sei aurreratu. Hain justu, ekarpenak egiteko parte hartzearen prozesuan arazotutako eskaerapeko zerbitzuetan aurrekusi diren orduetegi buruzko iritzia jasotzen da, orduetegi berriak beharretara egokitzen diren jakiteko.

Oraindik ez dago zehaztuta eskaerapeko zerbitzu horien eskaera nola egingo den. «Behin esleipena martxoan jarrita zehaztuko da hori», esan du Mendizabalek. Bestalde, zerbitzu mailua izango dela dio: «Hasiera batean taxi batek egiten baditu zerbitzu horiek, eta gero ikusten bada lau pertsona baino gehiagok egiten dutela eskaera zerbitzu jakin baterako, mikrobusa jarriko da martxoan».

**Udarako, esleipena**  
Behin eskualdeko ekarpenak jasotzen, foru aldundiak alegazio bateratua abian bidaliko zaitu. Alegazioari erantzuna emateko beste hilerako inguru pasako da. Horren ondoren proiektua idatziko da eta zerbitzuaren esleipenerako lehiaketa egingo da. «Foru aldundiaren bidez, uztailera zerbitzu berri martxoan izan daitezke», esan du Mendizabalek.

Eguneko zerbitzu Tolosaldea Bus enpresak ematen du, 2008a arte zuten zerbitzuaren esleipena, eta gero urte urte luzaizten joan zaitu. Egun hamabost zerbitzu dauka gutzira eta 2011n 103.577 bidaiari egun zuzen erabiltzaileek, eta 2012ko lehen sei hilabeteetan 54.874 bidaiari.

Tolosaldeko garraio publikoaren erabilera datuak begiratu gero, eskualdean errotatutako pertsonen, 2012ko lehen sei hilabeteetan eta Lurraldeko zerbitzu guztiaren, 247.832 bidaiari egun zuzen, Tolosaldean bertan eta kanpoan. Horietatik, 167.048 (% 67,40) erabiltzaileek egun zuzen, eta 80.784 (% 32,60) gizonzuek.



**Tolosaldeko garraio publikorako aurrekusten diren zerbitzuak**

**ZERBITZU ARRUNTAK**

- D1. Tolosa-Alegia-Ametzeta-Abaltzisketa.
- D2. Tolosa-Ibarra-Berrobi-Elduain-Berastegi.
- D3. Tolosa-Tzarama-Lizartza-Orea.
- D4. Tolosa-Ibarra-Belauntza-Leaburu-Gaztelu.
- D5. Tolosa-Albiztur-Bidegoian.
- D6. Tolosa-Apata-Ereka.
- D7. Tolosa-Anoeta-Irua-Villabona-Asteasu.
- D8. Villabona-Asteasu-Larrauri eta Villabona-Aduna.

**ESKARPEKO ZERBITZUAK**

- D1. Tolosa-Anoeta-Alkiza.
- D2. Tolosa-Hernialde.
- D3. Villabona-Zizurkil.
- D4. Aduna-Andoain.
- D5. Alegia-Orendain.
- D6. Alegia-Altzo.
- D7. Alegia-Ikatzegieta-Ballarain.

**zure zitzada behar dugu**

Bihar, goizeko 9:30etik 14:00etara Tolosako Triangulua eta Zarkusa artean Berri Lagunaren mahaia jarriko dugu

Izan zaitez **berri laguna**

www.mak.a.e



Aiztindoko Denbora Bankuko kideak Asteasun, herritarrei egitasmoa azaltzen. A. IMAZ

## Krisi garaian egon edo ez egon, dirurik behar ez duen bankua aurkeztu dute

Asteasun Aiztindoko denbora bankua zer den azaldu die herritarrei; Tolosan, egun pasa antolatu dute bihar

**Asier Imaz**

Asteasun Aiztindoko denbora bankua aurkeztu zuten iragan astean, arduradun eta bankuko kideek. Banku guztien modura, Asteasura bezero bila joan ziren. Desberdintasuna, ordea, nabarrena da: alde batetik, ez dago dirurik tartean, eta bestetik, irabazle bakarrak bezeroak dira.

Denbora banku bat filosofia bat da, zerbitzuak trukatzeko sistema bat, eta denbora da trukearen ardatza, ez dirua. Eguno egoera ekonomikoan, zeresana eman dezakeen ekimena da Aiztindoko mankomunitateak duela hiru urte martxan jarritakoa. Bezero gehiago lortzeko aukera ikusten baitute denbora bankuko kideek. Horretarako, lehenik ekimena zer den azaldu behar da, eta Asteasuko aurkezpen ekitaldiaren helburu nagusia hori zen: «Orain arte egin duguna azaldu, herritarren artean partekatu, zalantzak argitu eta herritarrak gurekin elkartzera gonbidatu». Urrats hori eman nahi duen orok, Aiztindoko mankomunitatearekin harremanetan jartzea nahikoa izango du. Horrez gain, <http://aiztindokodenborabankua.blogspot.es/> helbidean zintzilikatu dute informazio guztia.

Egun, 25 bezero ditu Aiztindoko denbora bankuak, eta trukean ibili ez arren, 10 lagun gehiago dituzte inguruan. Ibilbidearen hasieran aurkitzen direla kontuan

hartuta, gustura agertu ziren denbora bankuko kideak hiru urte hauetan lortutakoarekin.

**Pausoz pauso, poliki eta xume** 2009an jarri zuten egitasmoa martxan Aiztindoko mankomunitateak. Denbora bankua herri txikienetan hasi ziren aurkezten: Aduna, Larrail, Alkiza eta Zizurkil Goian. Partaideen esanetan, «aizolana ongi ezagutzen dugu gure herrietan, eta horrek denbora bankua zer den azaltzea errazten du, filosofia horretatik sortutako ekimena baita».

Balantzea egiteko garaian, xumetasuna azpimarratzen dute: «Oso positiboa izan da orain artekoa. Mankomunitatearen babesa izan arren, poliki-poliki joan gara, genituen balibideak kontuan hartuz. Lehenik eta behin bilerak egin ditugu, eta ondoren, ahoz aho nola zabaldu den ikusi dugu. Hori oso garrantzitsua izan da, eta bezeroak ere horrela lortu di-

**↓ Emakumeen denbora banku taldeen arteko egun pasa**

**AZAROAK 17, LARUNBATA TOLOSAKO PLAZA BERRIAN**

- **11:00-14:00.** Mahai ingurua, Denbora Bankuak koordinatzen dituzten emakume taldeen esperientzia zuzenean ezagutzeko.
- **14:00-16:00.** Bazkaria.
- **16:00-18:30.** Lantegiak; horma irudi kolektiboa eta pankartak pintatzea.
- **19:00.** Trikimanifa.
- **19:30.** La Furia taldearen kontzertua.

tugu. Kanpaina handiak ez ditugu egin, eta hori kontuan hartuta, lortutako emaitzak benetan azpimarratzekoak izan dira».

Gero eta bezero gehiago, orduan eta trukerako aukera gehiago. Horregatik antolatu zuten Asteasuko aurkezpen ekitaldia. Herri handietara salto egiteko aitzakia ere izan zen, izan ere, Villabona eta Zizurkil Behea gelditzen zaizkie oraindik. Funtzionamenduak, ordea, ez du atsedetik hartzen, eta jadanik hamaika denbora trukaketa eginak dituztela diote partaideek: «Beharren arabera funtzionatzen du. Baratzetan landareak biltzeko laguntza behar badut, adibidez, deialdia egiten du denbora bankuaren bidez. Interesatuak esku bat botatzen dit, eta nik ordaintan denbora txeki bat ematen diot. Horrekin, denbora bankuko kudeatzailearengana joaten da, eta hark esaten du zenbat ordu hartu eta zenbat eman diren».

Aurrera begira, hartu emanak sarearen bidez ere egitea gustatuko litzateke, eta horretan ari omen dira lanean.

Denbora bankua aurrera eramateaz gain, trukean oinarritutako bi azoka antolatu dituzte, eta aurten ere lan horretan hasiak dira. Jostailuak bilduko dituzte ondorengo egunetan herritarren artean, eta ondoren azoka eguna antolatuko dute Zizurkil, azaroaren 23an eta 24an.

**Tolosan, egun pasa**

Emakumeen denbora banku taldeek topaketa egingo dute Tolosako Plaza Berrian, bihar. Egun guztiko egitaraua antolatu dute, eta jai giroan denbora bankuaren filosofia zabaldu nahi dute herritarren artean.

## → Laburrak

### Udalak herritarrekin hitz egiteko bilera egingo du

**ANOETA** › Udalak herritarrei hainbat gauza azaldu nahi dizkiela jakinarazi du, eta horretarako, bilera bat antolatu du azaroaren 19an, astelehenean. Batzarra 18:00etan hasiko da udaletxean. Bertan, aurrekontuak, hirigintza (babes ofizialeko etxeak...), banderaren auzia eta bestelako hainbat gai aztertuko dituzte. Gai hauen garrantzia azpimarratu nahi izan dute udaletik, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bilerara, guztien artean eztabaidatzeko.

### Gabonak prestatzeko bilera, azaroaren 20an

**ANOETA** › Gabonak gertu diren honetan, Anoetan bilera egingo dute egun horietako kultur programazioa prestatzeko. Azaroaren 20an elkartuko dira udaletxean, 18:30ean. Udaletik herriko eragile eta herritar guztiak gonbidatu dituzte batzarreara.

### V. Argazki Rallyko lanak ikusteko aukera, Gurean

**AMASA-VILLABONA** › V. Argazki Rallyko argazkiak Gurea zinemari jarriko dituzte ikusgai Aizkardi mendi taldeko kideek. Azaroaren 19tik 23ra bitarteko egongo dira bertan, eta ikusleek euren botoa emateko aukera edukiko dute, argazki onenak aukeratzeko. Sarietan isla izango dute boto hauek gainera, publikoaren saria lortzen duenak Iturri-Goxo jatetxean bi lagunentzako afaria irabaziko baitu.

### Diru laguntzen bigarren zatia jasotzeko deialdia

**ZIZURKIL** › Udalak 2012 urtean ematen dituen diru laguntzen zuzentzea egin behar dela azaldu du, urtea amaitu baino lehen. Horretarako, diru laguntza jaso duten taldeek urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztu beharko dituzte. Dokumentazio hau aurkeztu ondoren, udalak diru laguntzaren %25a ordainduko die.

### Izen abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera

**ZIZURKIL** › Izen abizenak euskal grafiara pasatzeko aukera eskaintzen du udalak, «modu erraz eta azkar batean». Horretarako Aurrera Plazako udal bulegoetara joan behar da, errolda agiria; jaiotza agiria; NAN fotokopia eta familia liburuarekin. Informazio gehiagorako 943 69 24 95 zenbakira deitu behar da.



Manu Azkarate tolosarra. HITZA

## Abenduaren 13an argituko da Manu Azkarate tolosarraren aurkako auzia

Espainiaratzearen inguruko erabakia hartu beharko du Frantziako Tolosa herriko epaitegiak

**A. Imaz** Tolosa

Manu Azkarateren aurkako epaiketa asteartean izan zen Frantziako Tolosako epaitegian. Epaiak erabakia abenduaren 13an hartuko duela jakinarazi zion Azkarateri. Tolosarraren esanetan, hiru aukera daude: «Euro agindua onartzea; guri jaramon eginez erabakia atzeratzea, edo aske uztea, Espainiaren eskaria atzera botzea».

Espainiako justiziari eskatuta atxilotu zuen Frantziako polizia Manu Azkarate, martxoan Lapurdin, ETArekin lotura izatea egotzita. Bere aurkako euro agindua epaitegiek aztertzen zuten bitartean, aske gelditu zen tolosarra. Estradizioaren inguruko lehen epaiketa Pauen egiten hasi ziren, baina uda hasieran bertan behera gelditu zen. Orain bigarren saiakerari ekin diote, Frantziako Tolosa herriko epaitegian. Bertan, Espainiaratzearen inguruko lehen saioa asteartean izan zen.

Epaiketan Manu Azkarateren defentsak alde batetik, tolosarrari mediku azterketa egitea eskatu zuen, gaixotasun kroniko bat baitu Azkaratek. Bestetik, Espainiaren eskariak forma akatsak dituela azaldu zuen, dokumentuak falta direlako. Defentsari arrazoia emanaz gero, epaiketa atzeratu egingo litzateke.

Abenduaren 13ko erabakia tolosarraren aurkako izango biltz, Azkaratek Parisko tasazio epaitegian helegitea jartzeko aukera izango luke. Epaia fax bidez bidaliko diote Azkarateren abokatuari. Ondoren, hilabeteko epean, modu ofizialean jasoko du epaitegien erabakia.



# Garagardo Pesta ospatuko dute bihar, Leitzako Torrean

Bazkariaren ostean musika eta pintxoak dastatu ahalko dira; gauean zuzeneko musika izango da

**Iñigo Terradillos** Leitza

Alemaniar kutsua duen festa, bertako ohiko edari eta jakiekin, izango da bihar Leitzako Torrean tabernan. X. Garagardo Pesta zuzeneko musika emanaldiak borbilduko du.

Festa 14:00etan hasiko da, izan ere, azken bi urteetan egin duten moduan, afariaren ordez bazkaria egingo dute. Saltxitxa alemaniarrek, patatak purearekin, txekor sailheskia letxugarekin, limoi eta kaba sorbetea, kafea eta kopa izango dute menu moduan bazkaltiarrek. Horrez gain, garagardo festa izaki, hamar garagardo desberdin dastatzeko aukera izango dute. Antolatzaileek azaldu dute 60 lagun inguru espero dituztela bazkarian. Bertarako txartelak



Aurten ere 60 lagun inguru espero dituzte bazkarian. HITZA

eskuratu nahi dituenak gaur izango du azken eguna. Torrean bertan eskatu ahalko dira, 28 euroren truke.

## Zuzeneko musika

Azken urteetan bezala, Iparraldeko Nats & Wats taldearen kontzertua izango da bihar gauean. 23:00etan hasiko da kontzertua, baina aurretik ere euren musika entzuteko parada izango da, izan

ere, taldekideak bazkarian izango dira, eta bazkalostean abesti batzuk joko dituzte.

Arratsaldea betea izango da Torrean tabernan, izan ere, Oinatz Bengoetxea leitzarraren pilota partida jarraitzeko pantaila erraldoia jarriko dute, eta hori bukatzean, parrillan erretako saltxitxa eta hirugiharre pintxoak dastatu ahalko dira euro baten trukean.

# Xabier Amuriza bere azken liburuaz ariko da Leitzako liburutegian

Azaroaren 28an izango da hitzaldia, 19:30ean; bertarutzen direnen artean eztabaida sortzea da helburua

**I. Terradillos** Leitza

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskara zerbitzuak antolatuta, Xabier Amurizak hitzaldia emango du azaroaren 28an, Leitzako liburutegian, 19:30ean hasita.

*Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* liburu argitaratu du berriki, *Euskara batuaren bigarren jaio-tza* liburuari jarraipena emanaz. Bai batarekin eta bai bestearekin euskararen, eta zehazkiago euskara batuaren, inguruko eztabaida sortu nahi izan du Amurizak. Gai orokorrak eta zehatzak jasotzen dira liburuan, euskararen ezaugarriekin eta erabilerarekin lotuak. Bada, hitzaldian euskara batuaren inguruko bere iritzia azaltzeaz gain, bertarutzen direnekin eztabaida sortzea da helburua.

# 'Fruitua' Estankonaren lan berria kalean da

Itsaso Etxebeste baxu jotzaile belauntzarrak ere parte hartzen du bizkaitarraren proiektu berrian

**I. Terradillos** Belauntza

Estankonaren bigarren diskoa *Fruitua* (Baga Biga) izenokoa kalean da. Borja Estankona musikari bizkaitarra dago proiektuaren

atzean, eta berarekin batera lehendabiziko diskoko partaideak izan ditu, hau da, Itsaso Etxebeste belauntzarra (baxua) eta Biarritzeko Jimmy Arrabit (bateria-jotzailea).

Lan berrian askotariko hamai-ka pop eta rock kantua «koloretu eta bizizale» bildu dituzte, Estankonaren nortasun zeinuen, malenkoniar eta tentsioari bizkarra eman gabe. Disko berria aurkezteko zuzeneko emanaldiak hasi dira dagoeneko.



Borja Estankona, Itsaso Etxebeste eta Jimmy Arrabit. HITZA

# Leaburuko bideak auzolanean garbituko dituzte, etzi goizean

08:00etan hasiko dira garbiketaren lanekin; udalak herritar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera

**I. Terradillos** Leaburu-Txarama

Herriko bideak auzolanean garbitzen egongo dira etzi goizean Leaburun. Autobus geltokian jarri dute hitzordua, 08:00etan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

Udalak deituta, uzailean egin zuten azken auzolana Leaburun, eta 12 herritar elkartu ziren base-rietako bideak garbitzeko. Udalaren arabera, «herritarrek erabiltzen dituzten bideak izanik, guztien artean garbitzeko ideia oso gokia da».

Bada, etziko deialdirako ere herritarrek animatu nahi dituzte. Udalak hamaiketako eskainiko die parte hartzen dutenei, eta lanerako makinak ematen dute nentzat gasoila ere udalak jarriko du. Parte hartzaileen laguntza eskertu dute aldeaz aurretik.



Auzolanean, Leaburun. HITZA

## Hilberriak eta urteurrenak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**VALENTINA ARBELAIZ OLAIZ**  
andrea

*Maitasunak behin  
batu gintuenok  
banatzeko  
indarrak ez du ezerk,  
ezta heriotzak ere*

**Makutxo tabernako lagunak**

Ostiratsun, 2012ko azaroaren 16an



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeca Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoetaldia:** 687 410 022. anoetaldia@hitza.info  
**Ibarraldia:** 687 410 118. ibarraldia@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldia:** 687 410 118. leitzaldia@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Iruztzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Iruztzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

**ETZI**

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Iruztzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

- **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 20 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia 5. Telefonoa: 112.
- **Iruztzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Irudia Tolosa**



**PINTXO LEHIAKETA EGIN DUTE**

Atzo hasi ziren Babarrun Asteko ekitaldiak, eta horretarako pintxo lehiaketa egin zuten. Tolosa & Co merkatari elkartearen laguntzarekin antolatu zuten txapelketa, eta epaimahaiko kideek elkarteko kide diren zortzi tabernetatik pasa ziren, babarrunekin egindako pintxoak dastatzeko. Ekitaldi nagusiak dena den, larunbatean eta igandean izango dira, tartean, larunbateko azoka berezia. LURKIZU

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Leitza.** Aurrekontuen inguruko bilera, gaur, 19:00etan, udaletxeko batzar aretoan.
- **Leitza.** Garagardo pesta, Torrean, bihar, 14:00etan hasita.
- **Tolosa.** Liburu eta artisautza azokak San Frantzisko ibiltokian, asteburuan zehar.
- **Tolosa.** Emakumeen Denbora Bankuak antolatuta egun pasa (ikus egiteraua 6. orrialdean).
- **Tolosa.** Tolosa & Co-k antolatuta Gari, Montxo y Joxelontxo pailazoak, bihar, 18:00etan Berdura plazan.
- **Tolosa.** Babarrunaren Astearen barruko ekitaldi nagusiak bihar eta etzi. Bihar, azoka berezia eta ekoiizleen lehiaketa, besteak beste, eta etzi, Zerkausion,

Babarrunaren Azoka Gastronomia eta herri bazkaria.

- **Anoeta.** Kultur eta Kirol Astearen barruan, gaur, 18:00etan: ipuin kontaketa euskaraz eta arabieraz; 21:30ean Euskal Jaia-en bideoaren emanaldia; eta ondoren, *Sua* filma. Bihar, 11:30ean herri krosa, 14:00etan bertso bazkaria eta 19:30ean gaztaina jatea, plazan.
- **Aduna.** Kultur ekitaldien barruan, gaur, Iñaki Egaña historia-lariaren *Euskal Nortasun Iku-rak* hitzaldia, 19:00etan, kultur aretoan, eta ondoren, 21:30ean Txulobi elkartearen, Euskal Herriko V. Mus Txapelketako kanporaketa saioa. Bihar, 09:30ean mendi martxa eta 16:30ean Irrien Lagunak kluba. Igandean, 12:00etan axeri dantzaren

emanaldia, 12:30ean kantu jira eta egurdian erromeria.

- **Ikaztegieta.** Kultur astearen barruan gaur, *Sua* filma, 22:00etan, udaletxean, eta bihar, 16:30ean herri krosa.
- **Amezketeta.** Kultur astearen barruan, gaur, 19:30ean, *Transpirenaika bizikletan*; eta 20:30 patata tortilla lehiaketa. Bihar 11:00etan *Amezketan pilota tantoz-tanto* Joxe Mari Otermiren hitzaldia, 12:00etan txakolin dastatzea, eta 16:00etan Mus Txapelketa. Igandean, azoka goizean zehar.

**MUSIKA**

- **Tolosa.** Bonberenean, gaur, Kokein eta Split 77, 22:30ean, eta bihar, ordu berean, The

Brontës eta Muturbeltz.

- **Leitza.** Nats & Wats, 23:00etan, Torrean.
- **Tolosa.** Musika Banda, igandean, 12:15ean, Leidorren.

**ZINEMA**

- **Tolosa.** Leidorren, bihar, 19:30ean, *El artista y la modelo* eta 22:30ean, *Bypass*; igandean, 17:00etan *Pánico en la granja* (haur zinea), eta *Bypass* 19:30ean eta 22:00etan; astelehenean, ikuslearen eguna, 20:30ean, *El artista y la modelo*.
- **Villabona.** *Madagascar 3*, igandean, 17:00etan, Gurean.
- **Leitza.** *Barrura* begiratzeko leihoak bihar, 22:30ean eta igandean, 19:30ean.

**AZAROA 15 - 18**  
**TOLOSAKO**  
**BABARRUNAREN**  
**ASTEA 2012**

AZAROA 17 TOLOSAKO  
BABARRUN EKITALDIEN  
LEHIKETA ETA AZOKA BEREZIA

AZAROA 18 LEHIKETA GASTRONOMIA  
ETA BAZKARI HERRIKOA

**AZOKA**  
**BEREZIA:**

OKAZO BERTAN HASI ETA ESANEN 2AK BERTARTAN, TRAMUOLA PLAZAN EGURDI LABELA DUTEN BABARRUN AZOKA SA NAGUSI, HANZ ETA HURRERU LOTURUN HURRAT PRODUKTU ERE JARRERAN IGANDEN DUTEN BABARRU PIPARRA, BARAZKAK, OOGLEKIA, SAHESKIA, URDUA, ANDA...